

EUSKAL ENPRESEN EGITURA ETA DEMOGRAFIA 2002. urtea

%2,2 hazi da enpresa-kopurua eta eta %3,8 enplegua Euskal AE-n 2002an

Baltzu mugatuak dira enpresarik dinamikoenak eta hazkunde handiak izan dituzte kopuruan eta okupazioan.

Euskal AEren eremuan jarduera gauzatzen duten industriako eta zerbitzuetako enpresen kopurua %2,2 hazi egin da 2002. urtean, eta 154.376 enpresa aktibo zenbatu dira, Eustatek burutu duen Jarduera Ekonomikoen Gidazerrendaren azken eguneratzearen arabera. Enpresen %98,1ek gure erkidegoaren lurraldean dute egoitza, eta 2.917k Estatuko gainerakoetan; azken enpresa horiek 81.940 laguni ematen diete enplegua, guztizkoaren %10,4ri.

Enpresek 170.479 establezimendutan gauzatzen dute jarduera (fabrikak, dendak, bulegoak...) eta 788.663 laguni ematen diete lana. Enpresen tamaina establezimenduko 4,6 lagun landunekoa eta enpresako 5,1 lagun landunekoa da. Titulartzat pertsona fisiko bat duten enpresak salbuesten badira, enpresen tamaina bikoiztu egiten da, eta establezimenduko 9,4 lagun landunera eta enpresako 11,6 lagunera iristen da. Datu horiek erakusten dute gure enpresa-sarea oso atomizatuta dagoela.

Establezimenduak eta enplegua jarduera-adarka. 2002

	Euskal AE				Araba				Bizkaia				Gipuzkoa			
	Kop.	02/01	Enplegua	02/01	Kop.	02/01	Enplegua	02/01	Kop.	02/01	Enplegua	02/01	Kop.	02/01	Enplegua	02/01
Guztira	170.479	2,1	788.663	3,8	22.237	2,4	128.340	3,7	87.097	2,3	394.206	4,0	61.145	1,8	266.117	3,6
Industria eta energia	15.328	1,2	222.294	2,1	2.432	2,7	44.667	3,1	6.842	1,4	90.648	2,4	6.054	0,5	86.979	1,4
Eraikuntza	22.323	5,3	72.495	8,5	3.018	5,9	10.514	6,4	10.325	5,9	39.390	9,8	8.980	4,4	22.591	7,2
Merkataritza eta konpon.	46.184	0,4	122.607	3,9	5.642	0,3	17.495	4,4	24.609	0,7	65.396	3,8	15.933	0,0	39.716	4,0
Ostalaritza	15.119	1,4	40.214	5,7	2.093	1,9	5.813	3,5	8.307	1,6	20.236	8,5	4.719	0,7	14.165	2,8
Garraioa eta komunik.	15.245	-0,9	45.213	3,5	1.822	-1,6	5.684	6,2	8.065	0,0	24.640	1,3	5.358	-1,9	14.889	6,2
Bankuak, aseg. eta enpres.zer.	31.133	4,5	112.802	3,3	4.002	5,2	14.989	2,1	16.445	4,2	65.424	3,8	10.686	4,7	32.389	2,7
Bestelako zerbitzu-jard.	25.147	2,6	173.038	4,1	3.228	2,2	29.178	3,8	12.504	2,4	88.472	3,5	9.415	3,0	55.388	5,4

Iturria: Eustat

Establezimenduen sortze garbiaren eta enpleguaren tasak desazeleratuz joan dira azken urteetan, baina 2002an goranzko joera berreskuratu dute. Izan ere, establezimendu-kopurua %2,1 hazi zen 2001en aldean eta hori hiru herrialdeen hazkunde nahikoa homogeneoaren emaitza da. Jarduera ekonomikoko sektore handi guztietan ere hazi egin da, Araba eta Gipuzkoako garraioa eta komunikazioak sektorean izan ezik.

Bestalde, enpleguak %3,8ko igoera izan du eta Bizkaia nabarmentzen da %4,0koa izan baitu. 1997tik enpleguak 126.723 lagun irabazi ditu Euskadin eta urteko batez besteko %3,6ko tasa metatura iritsi da.

Aurreko urteetan bezala, jarduera-adar dinamikoena berriro ere eraikuntza izan da, %8,5eko enpleguaren hazkunde-tasa izan baitu (Bizkaian %+9,8). Sektoreetako %3,8ko batez bestekoaren gainetik daude honakoak ere: ostalaritza (%5,7), bestelako zerbitzu-jarduerak (%4,1) eta merkataritza eta konponketa (%3,9). Herri-administrazioak, osasuna, hezkuntza, eta zerbitzu sozial eta pertsonalak bigarren adarrean daude, bestelako zerbitzu-jarduerak adarrean.

Gidazerrendan jasotzen den pertsonalaren %62,6 zerbitzuen sektorean dago, eta haren atzetik, industrian %28,2 eta eraikuntzan %9,2. Industriaren egiturazko enplegu-maila handiena, herrialdeka, Araban dago, herrialde horretan biztanleria landunaren %34,8ra iristen baita, eta haren atzetik, Gipuzkoan (%32,7) eta, urrunago, Bizkaian (%23,0). Herrialde hori lehen tokian dago, zerbitzu-sektoreko (%67,0) eta eraikuntzako (%10,0) biztanleria landunaren ehunekoari dagokionez.

Biztanleria landun handiena daukan zerbitzu-adarra bestelako zerbitzu-jarduerak da, biztanleria landunaren %21,9 hartzen baitu (173.038 lagun). Haren atzetik, merkataritza eta konponketa adarra dago, 122.607 lagunekin, %15,5; eta, azkenik, bankuak, aseguruak eta enpresa-zerbitzuak, 112.802 lagunekin, hau da, guztizko enpleguaren %14,3rekin.

Enplegu-tamainaren araberako egitura apenas aldatu da, urte asko atzera eginda ere bai. 2002an, 128.128 establezimendu, guztizkoaren hiru laurden baino gehiago, ez dira 3 lanpostura heltzen eta enplegu guztiaren %19,2 hartzen dute. Beste muturrean, 50 enplegu edo gehiagoko establezimenduak 2.114 dira, guztizkoren %1,2, eta 304.408 lanpostu dituzte.

ENPRESA-DEMOGRAFIA

Euren jarduera urte horretan hasi eta eten duten enpresen saldo garbia 3.565koa da. Enpleguaren sortze garbian 15.893 landun gehiago esan nahi du, establezimendu berriek enplegu-ekarpen handiagoa egin baitute itxi diren establezimenduen galeren aldean. Euren jarduerekin jarraitzen duten establezimenduen artean ere enplegua hazi egin da eta 13.187 lagun gehiago dituzte. Emaita orokor gisa, jarduera ekonomikoak 29.080 lanpostu sortu ditu.

Establezimenduen demografia. Euskal AE. 2002

Jardueraka	Saldo orokor. (2002-2001)		Lege-nortasunka	Saldo orokorra (2002-2001)	
	Kop.	Enplegua		Kop.	Enplegua
Guztira	3.565	29.080	Guztira	3.565	29.080
Industria eta energia	189	4.622	Pertsona fisikoa	-1.027	-187
Eraikuntza	1.120	5.675	Akziokako baltzua	385	4.332
Merkataritza eta konponketa	197	4.647	Baltzu mugatua	3.781	21.326
Ostalaritza	206	2.175	Bestelako baltzu eta elkart.	579	3.155
Garraioa eta komunikabideak	-133	1.528	Bestelako lege-erak	-153	454
Bankuak, aseguruak eta enpres. zer.	1.343	3.564			
Bestelako zerbitzu-jarduerak	643	6.869			

Iturria: Eustat.

Txandakatze handiena pertsona fisikoaren lege-formula pean sortzen diren enpresetan gertatzen da, sarreraren ia %55 eta irteeren %73 eragiten baitute; haien saldo orokorra, bai jarduera eteteagatik, bai beste forma juridiko batera eraldatzeagatik, 1.027 establezimendu jaitسي da, eta 187 lanpostu galtzea ekarri du.

Lege-nortasunik dinamikoen, azken urteotako dinamismoa areagotuz, baltzu mugatua da, 2002. urtean saldo positiboa izan baitu: 3.781 establezimendu eta 21.326 lanpostu garbi igo da, hau da, sortutako enplegu berriaren %73 baino gehiago. Forma juridiko honek bere enplegua bikoiztu du 1997tik eta 171.975 lanpostura iritsi da 2002an. Horregatik guztiatik, bere pisu espezifiko handitu du, bai unitate-kopuruan eta baita enplegu-balioetan ere, gainerako forma juridikoen kaltetan.

Demografia jardueraren arabera aztertzean, Bankuak, aseguruak eta enpresa-zerbitzuak (sarrera guztien %25,4 eta irteera guztien %21,9) eta eraikuntza (sarreraren %21,5 eta irteeraren %18,6) dira establezimendu-sortze garbia lortu duten jarduerak adarrak, sektoreen guztizkoaren aldean duten euren pisuen oso gaineratik dauden proportzioetan. Jarraitzen duten establezimenduen balizko jarduerak kontuan hartuta, ikusten da jarduerak sektore guztiek gehitu dituztela euren efektiboak, garraioa eta komunikazioak izan ezik, honek 133 establezimendu galdu baititu.

Enplegu garbiari dagokionez, sortze handiena bestelako zerbitzu-jarduerak adarrean gertatu da (enplegu berri guztien %23,6 ekarri ditu) eta haren atzetik, eraikuntza (%19,5). Azken honek berriro ere atentzia ematen du, egiten duen ekarpena nahiko handiagoa delako sektore guztien aldean duen pisu espezifikoari (%9 inguru) dagokiona baino.

Establezimenduen tamainaren arabera, geruzarik dinamikoen 2 enplegu edo gutxiagokoa da, dudarik gabe. Berak bakarrik sarrera guztien %81,3 hartzen ditu eta irteera guztien %88,0. Gainera, establezimenduak geruza-aldaketatik galtzen dituen talde bakarra da, igotze ugari izaten baitira enplegu-maila altuagoetara.

Bestalde, 50 enplegatu edo gehiagoko establezimenduak, askoz ere egonkorragoak izan arren, enplegu berrien zatirik handiena ekartzen dute, bai sarreraren eta irteeraren arteko diferentzia positiboagatik, eta bai jarraitzen duten establezimenduetan enplegua gehitzeagatik ere. Faktore biak batuta, geruza honek 7.443 enplegu berri ekarri ditu, guztizkoaren %25,6.

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Federico Gutiérrez

Tlf:+34-945-01 75 43 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es